



ERANSKINA DIRULAGUNTZEN 2023ko PLAN ESTRATEGIKOA LEHENDAKARITZA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioetako organoek edo dirulaguntzen programak ezartzea proposatzen duen edozein erakundek, aldez aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horiek aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta haien finantzatzeko iturriak ere; betiere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta. Horrez gain, arauak zehazten du lortu nahi diren helburuek merkatuari eragiten diotenean argi eta garbi identifikatutako akatsak zuzentzera bideratu behar dela araua eta bere ondorioek ahalik eta distortsio txikiena eragin behar dutela. Lege horretan aipatzen diren dirulaguntzak kudeatzeko, printzipio hauek erabiliko dira:

- a) Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- b) Eraginkortasuna Administrazio emaileak ezarritako helburuak betetzean.
- c) Eraginkortasuna baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eremuan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/2015 Zirkularrak, Dirulaguntzen Plan Estrategikoak prestatzeari buruzkoak, horiek ezinbestean egiteko jarraibideak eman ditu.

Lehendakaritzak, Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, esleitutako arloetan garatzen du jardura, abenduaren 28ko 48/2020 Dekretuak eta Lehendakariaren irailaren 23ko 18/2022 Dekretuak aldatuta. Azken aldaketa horrek Gazteria arloa esleitzen dio Lehendakaritzari, lehen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailean zegoena.

Urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuak onartutako egitura organiko eta funtzionalean ezarritakoaren arabera, Lehendakaritza hiru idazkaritza nagusitan egituratzen da – Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia eta Gizarte Trantsizioeko eta 2030 Agendako Idazkaritza Nagusia –, bai eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatua ere.



Hori dela eta, Lehendakartzaren Dirulaguntzen 2023ko Plan Estrategikoa landuko da jarraian; eta lehenik eta behin adierazi behar da plana programatikoa dela, horrelako beste planak bezala, eta, beraz, edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Planaren eraginkortasuna, bestalde, abiarazten diren dirulaguntza ildoen baldintzapekoa izango da eta hori, beste alderdi batzuen artean, urte bakoitzean dagoen aurrekontuaren arabera izango da.

Plangintzaren ikuspegitik, kontuan hartu behar da Lehendakartzari esleitutako jardun eremuetan honako hauek osatzen dutela esparrua: Euskadi Basque Country / 2025 Nazioartekotzeko Esparru Estrategiak, 2021-2025 Kanpo Harremanetarako Planak, 2021-2024 Ekintza Planak (Agentziaren 2030erako Lehentasunen Euskal Programaren barruan) eta 2030erako Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak. Gainera, Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legean ezarritako aurreikuspenak betetzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2023rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legeak aurreikusten du hainbat ekimeni dirulaguntzen teknikaren bidez heltzeko baliabideak egotea plangintza honen xede ez diren dirulaguntza izendunekin batera –Eusko Legebiltzarrak helburu jakin baterako berariaz onartuta daude eta–. Baliabide horiekin, 2023ko ekitaldirako Dirulaguntzen Plana egin dugu, hainbat dirulaguntza lerro abian jartzea ahalbidetzen duena.

Hala, onartutako planak Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren, Gizarte Trantsizio eta Agenda 2030aren Idazkaritza Nagusiaren, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Komisionatuaren, eta Gazteria Zuzendaritzaren dirulaguntzak jaso ditu.

Dirulaguntza jaso dezaketen programa horietan beka ere sartu dira, norgehiagoka-prozeduren bidez esleitu beharreko zuzkidura gisa.

Nolanahi ere, dauden aurrekontu-baliabideen arabera emango dira dirulaguntzak.



KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

1.- KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK (2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANAREKIN LOTUTA, 2025 EUSKADI BASQUE COUNTRY Nazioartekotzeko Esparru Estrategian integratua).

1.1.- BEKAK

KANPO-HARREMANEN BEKAK: EUOPAKO GAIETARAKO BEKAK / KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATEAREN ALORREKO BEKAK / KANPO HARREMANETARAKO BEKAK

Europako Gaiak

AURREKONTUA: 23 01 1311 22 451 19/3301 **2023**: 4. kapitulua: 104.000 €. Konpromiso kreditua **2024**: 60.000 €.

Kanpoan den Euskal Komunitatea

AURREKONTUA: 23 01 1311 23 451 19/3303 **2023**: 4. kapitulua: 86.000 €. Konpromiso kreditua **2024**: 40.000 €.

Kanpo Harremanak

AURREKONTUA: 23 01 1311 21 451 19/3309 **2023**: 4. kapitulua: 63.000 €. Konpromiso kreditua **2024**: 53.000 €.

Araua: Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretua, kanpo harremanen arloan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituena

Helburua: Adimen lehiakorra eta ezagutza sustatzea nazioartekotzearen arloan

Jarduera: Beren ibilbide profesionala esparru horretan garatzeko ahalmena duten gazteei nazioarteko prestakuntza ematea

Adierazlea: beka kopurua: 14

Prozedura: Norgehiagoka-prozedura

Organoa: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

Helburu duten sektorea: Unibertsitate-titulazioa duten 28 urtetik beherako gazteak izanik, EAEn egoitza dutenak edo aitortutako Euskal Etxe bati atxikita daudenak

2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA

2. ARDATZA- SARE SOZIOEKONOMIKOAREN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATZEA

2.3 HELBURU ESTRATEGIKOA- Trantsizio hirukoitzari erantzuteko ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea

ILDOA: 2.3.1.- Nazioartekotzearen alorko talentua sustatzea

Jarduera: A): Kanpo-harremanen arloko prestakuntza-beken eta praktiken deialdia sustatzea

Adierazlea: Kanpo-harremanen arloko beken eta praktiken kopurua: 56



1.2.- KANPOKO EUSKAL KOMUNITAAREN KIDEENTZAKO PREMIA LARRIKO DIRULAGUNTZAK

AURREKONTUA: 23 01 1311 23 451 19/3317, 4. kapitulua; **2023:** 212.000 € / FINANTZAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritz

Araua: Irailaren 30eko 222/2003 Dekretua, euskal etxeentzako prestazio ekonomikoen araubidea arautzen duena, atzerrian dauden euskal gizataldeetako pertsonen laguntza-beharrei eta premia larriko egoerei erantzuteko

Helburua: Kanpoan den euskal komunitatea sendotzea

Jarduera: Kanpoan den euskal komunitateko kideei laguntzea

Adierazlea: Egoera larrian dauden familia-unitateentzako laguntza ematea (Laguntza kopurua: 100)

Prozedura: Norgehiagoka-prozedura

Organoa: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia / Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza

Helburu duten sektorea: Euskal gizataldeak

2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA

5. ARDATZA: EUSKAL KOMUNITATE GLOBALA ERAIKITZEA

5.1 HELBURU ESTRATEGIKOA.- Euskaldunen atzerriko presentzia historikoa sendotzea

ILDOA: 5.1.1.- Euskal Etxeen eta euskal gizataldeen sarea sustatzea eta babestea

Jarduera: A) Euskal Etxekin ekitaldiak eta jarduerak antolatzea

Adierazlea: Laguntza-programetako partehartzaileak (Planaren indarraldi osoan aurreikusitako laguntza kopurua: 500)

1.3.- EUSKAL ETXEEI ETA EUSKAL ETXEEN FEDERAZIOARI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK (Inbertsioak)

AURREKONTUA: 23 01 1311 23 753 19/3314; 7. kapitulua; **2023:** 180.000 €; Konpromiso-kreditua **2024:** 140.000 €; FINANTZAZIOA: % 100 Eusko Jaurlaritz

Araua: Martxoaren 18ko 50/2008 Dekretua, euskal etxeentzako dirulaguntzak arautzen dituena

Helburua: Kanpoan den euskal komunitatea indartzea

Jarduera: Kanpoan den euskal komunitatea sendotzea Euskal Etxeen bidez

Adierazlea: Euskal Etxeek euskal errealitatea hedatzeko mekanismo gisa duten zeregina indartzeko laguntzak. (Laguntzen kopurua: 10)

Prozedura: Norgehiagoka-prozedura

Organoa: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia / Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaritza

Helburu duten sektorea: Euskal gizataldeak

2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA

5. ARDATZA: EUSKAL KOMUNITATE GLOBALA ERAIKITZEA

5.1 HELBURU ESTRATEGIKOA.- Euskaldunen atzerriko presentzia historikoa sendotzea

ILDOA: 5.1.1.- Euskal Etxeen eta euskal gizataldeen sarea sustatzea eta babestea

Jarduera: B) Euskal Etxeen jarduerari eta azpiegiturari laguntzea

Adierazlea: Lagundutako Euskal Etxeen jardun kopurua. (Planaren indarraldi osoan lagundutako jarduera guztien adierazle orokorra: 3.500)



1.4.- EUSKAL ETXEEI ETA EUSKAL ETXEEN FEDERAZIOARI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK (Jarduerak eta funtzionamendua)

AURREKONTUA: 23 01 1311 23 452 19/3314; 4. kapitulua; **2023**: 847.900,25 €; Konpromiso-kreditua **2024**: 575.565 € / FINANTZAZIOA: % 100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Martxoaren 18ko 50/2008 Dekretua, Euskal etxeentzako dirulaguntzen erregimena arautzen duena eta 186/2021 Dekretua, uztailearen 27koa, Euskal etxeei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duen dekretua bigarren aldiz aldatzen duena (indarrean dagoen dirulaguntzen araudiaren erreferentziak eguneratzea eta ordaintzeko modua jardueraren bideragarritasunera egokitzea, ordainketa-kopurua bira murriztuz.

Helburua: Kanpoan den euskal komunitatea indartzea

Jarduera: Kanpoan den euskal komunitatea sendotzea Euskal Etxeen bidez

Adierazlea: Euskal Etxeak murgilduta dauden gizarteetan jarduerak sustatzeko laguntzak kopurua: 300

Prozedura: Norgehiagoka-prozedura

Organoa: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia / Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaritza

Helburu duten sektorea: Euskal gizataldeak

2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA

5. ARDATZA: EUSKAL KOMUNITATE GLOBALA ERAIKITZEA

5.1 HELBURU ESTRATEGIKOA.- Euskaldunen atzerriko presentzia historikoa sendotzea

ILDOA: 5.1.1.- Euskal Etxeen eta euskal gizataldeen sarea sustatzea eta babestea

Jarduera: B) Euskal Etxeen jarduerari eta azpiegiturari laguntzea

Adierazlea: Lagundutako Euskal Etxeen jardun kopurua. (Planaren indarraldi osoan lagundutako jarduera guztien adierazle orokorra: 3.500)

1.5.- GAZTEMUNDU 2023 PROGRAMA

AURREKONTUA: 23 01 1311 23 452 19/3313; 4. kapitulua; **2023**: 70.000 € / FINANTZAZIOA: % 100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Abenduaren 23ko 316/2003 Dekretua, Gaztemundu programa arautzen duena

Helburua: Egungo Euskadiren ezagutzan sakontzea, Euskadin lan egiten duten eta bizi diren erakunde, instituzio, enpresa eta pertsonekin harremanetan jarriz eta Euskadin eta Euskaditik kanpo bizi diren euskal gazteen arteko harremanetarako plataformak suspertzea, gazte horiek Euskal Etxeetan duten presentzia aktibatuz.

Jarduera: Diasporatik datozen gazteen heziketa-zikloak Euskadin antolatzea eta laguntzea

Adierazlea: Aukeratutakoen kopurua: 15

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura

Organoa: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia / Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaritza

Helburu duten sektorea: Onartzen den deialdian proposatutako gaietako buruzko azterlana edo ikerketa egin dutenak, baldin eta, alde batetik, 18 eta 35 urte bitarteko pertsonak badira eta, bestetik, EAEn bizi ez badira eta Euskal Etxe baten kide badira.

2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA

5. ARDATZA: EUSKAL KOMUNITATE GLOBALA ERAIKITZEA

5.1 HELBURU ESTRATEGIKOA.- Euskaldunen atzerriko presentzia historikoa sendotzea

ILDOA: 5.1.1.- Euskal Etxeen eta euskal gizataldeen sarea sustatzea eta babestea



Jarduera: A) Euskal Etxeekin ekitaldiak eta jarduerak antolatzea

Adierazlea: Gaztemundu programan parte hartu duten pertsonen kopurua, planaren indarraldi osoan: 75 (adierazle hori Euskal Etxeekin sustatutako programetan parte hartu duten pertsonen guztizko kopuruaren barruan sartzen da, hau da, 1100 pertsona)

1.6.- KANPOKO BAZKIDE ESTRATEGIKOEN SAREKO ESKUALDEEKIN LANKIDETZA TEKNIKOKO PROIEKTUENTZAKO DIRULAGUNTZAK (EUROPAKO ESPARRUA)

AURREKONTUA: 22 01.1311.22.452.22/0376; **2023:** 50.000 €; Konpromiso-kruditua **2024:** 0 € / FINANTZAZIOA %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Martxoaren 26koa 47/2019 Dekretua, Kanpoko Bazkide Estrategikoen Sareko eskualdeekin lankidetzatza teknikoko proiektuetarako laguntzak ematea arautzen duena
Helburua: Euskal interesak sustatzea.

Jarduera: Aliantza estrategikoak garatzea eta finkatzea, eta, horretarako, eskualde estrategikoetako erakundeekin alde biko lankidetzatza-proiektuak finantzatzea, besteak beste, honako arlo hauetan: merkataritzan; inbertsioetan eta negozio-aukeretan; I + g + b-n; politika industrialean; politika fiskalean; mugikortasunean eta garraioan; lan-merkatuan eta politika ekonomikokoan; ingurumenean eta energian; nekazaritzan eta elikaduran; osasunean; hezkuntzan eta lanbide-heziketan; kulturean; turismoan; eta poliziaren lankidetzan.

Adierazlea: Lagundutako proiektu kopurua: 8

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura

Organoa: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

Helburu duen sektorea: Egoitza EAEn duten erakunde juridiko pribatuak, kanpoko eskualde estrategikoetako erakundeekin egiten diren aldebiko jarduketatza- eta lankidetzatza-proiektuak dituztenak

2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA

3. ARDATZA- EUROPAKO PROIEKTUAN LAGUNTZEA ETA PARTE HARTZEA

1.7.- KANPOKO BAZKIDE ESTRATEGIKOEN SAREKO ESKUALDEEKIN LANKIDETZA TEKNIKOKO PROIEKTUENTZAKO DIRULAGUNTZAK (EUROPAKOA EZ DEN ESPARRUA)

AURREKONTUA: 22 01.131121452 22/0376/; 4. kapitulua; **2023:** 80.000 €; konpromiso-kreditua **2024:** 80.000 € / FINANTZAZIOA: %100 EUSKO JAURLARITZA

Araua: Martxoaren 26koa 47/2019 Dekretua, Kanpoko Bazkide Estrategikoen Sareko eskualdeekin lankidetzatza teknikoko proiektuetarako laguntzak ematea arautzen duena
Helburua: Munduan euskal interesak sustatzea.

Jarduera: Aliantza estrategikoak garatzea eta finkatzea, eta, horretarako, eskualde estrategikoetako erakundeekin alde biko lankidetzatza-proiektuak finantzatzea, besteak beste, honako arlo hauetan: merkataritzan; inbertsioetan eta negozio-aukeretan; I + g + b-n; politika industrialean; politika fiskalean; mugikortasunean eta garraioan; lan-merkatuan eta politika ekonomikokoan; ingurumenean eta energian; nekazaritzan eta elikaduran; osasunean; hezkuntzan eta lanbide-heziketan; kulturean; turismoan; eta poliziaren lankidetzan. Deialdi batean edo gehiagotan gauzatu ahal izango da.

Adierazlea: Lagundutako proiektu kopurua: 14

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura

Organoa: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

Helburu duen sektorea: Egoitza EAEn duten erakunde juridiko pribatuak, kanpoko eskualde estrategikoetako erakundeekin egiten diren aldebiko jarduketatza- eta lankidetzatza-proiektuak dituztenak.

**2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA****2. ARDATZA- EHUN SOZIOEKONOMIKOAREN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATZEA****2.1. HELBURU ESTRATEGIKOA- Erakunde-harremanak indartzea, eta bazkideekiko lanean eta nazioarteko aliantzetan sakontzea**

Ekintza ildoak: 2.1.1 Bazkide estrategikoekin aliantzak ehuntzea eta sendotzea

Jarduera: C) Euskal eragileen eta bazkide estrategikoen sareko horien homologoen arteko lankidetzak-proiektuak bultzatzea

Adierazlea: Planaren indarraldian diruz lagundutako proiektuen kopurua: 60



TRANSIZIO SOZIALAREN ETA 2030 AGENDAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

1.- TRANSIZIO SOZIALAREN ETA 2030 AGENDAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK, 2021-2024 EKINTZA PLANAREKIN LOTUTA, 2030 AGENDAREN LEHENTASUNEN EUSKAL PROGRAMAREN BARRUAN.

1.1.- 2030 AGENDA ETA TRANSIZIO SOZIALAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA-BEKAK
AURREKONTUA: 01 1122 31 451 21/0428 4. kapitulua; 2023: 70.000 €; / FINANTZIAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza
Araua: Dekretua, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloko prestakuntza beka arautzen dituen (prestatzen) Helburua: Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa 2030 Agendaren arloan. Jarduera: Trantsizio sozialaren eta 2030 Agendaren arloko prestakuntza-bekak. Adierazleak: Esleitutako beka kopurua: 4 Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura Organoa: Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia / Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritza Helburu duen sektorea: 30 urtetik beherako gazteak.
PLANA / ESTRATEGIA 2021-2024 jarduera plana
HELBURU ESTRATEGIKOA 2030 Agendaren lehentasunen euskal programa
EKINTZA ILDOA: I. lehentasuna: Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa. Jarduera: Gazteak berrikuntza sozialaren eta 2030 Agendaren arloan prestatzea eta gaitzea. Adierazlea: Esleitutako beka kopurua: 4
1.2.- 2030 AGENDA BONUEN PROGRAMA
AURREKONTUA: 01 1122 31 452 21/0430 4. kapitulua; 2023: 500.000 €. / FINANTZIAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza
Araua: 2030 Agenda Bonuen Programako dirulaguntzak arautzen dituen dekretua, 2030 Agendaren arloko proiektuetarako dirulaguntzak emateko. (Izapidetzen). Helburua: Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa 2030 Agendaren arloan. Jarduera: 2030 Agenda ezartzeko dibulgazio- eta/edo prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea. Adierazlea: Diruz lagundutako proiektuen kopurua: 100 Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura Organoa: Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia / Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritza Helburu duen sektorea: Irabazi-asmorik gabeko erakundeak, Euskal Autonomia Erkidegoko elkarten edo fundazioen erregistroan inskribatuta badaude eta jardueraren eremua Euskal Autonomia Erkidegoa badute.
PLANA / ESTRATEGIA 2021-2024 jarduera plana
HELBURU ESTRATEGIKOA 2030 Agendaren lehentasunen euskal programa
EKINTZA ILDOA: I. lehentasuna: Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa. Jarduera: 2030 Agenda Bonuen Programa, dibulgazio- eta/edo prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea Adierazlea: Diruz lagundutako proiektuen kopurua: 100

**1.3.- BERRIKUNTZAREN ETA 2030 AGENDAREN ARLOKO ESPERIENTZIA PILOTUAK ETA PROIEKTU ERAGILEAK SUSTATZEA**

AURREKONTUA: 01 1122 31 452 21/0431

4. kapitulua; **2023**: 150.000 €; / FINANTZIAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Berrikuntzaren eta 2030 Agenda arloko esperientzia pilotuen eta proiektu eragileen sustapena arautzen duen dekretua.

Helburua: Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa 2030 Agendaren arloan.

Jarduera: Berrikuntzaren eta 2030 Agenda arloko esperientzia pilotuak eta proiektu eragileak diruz laguntzea.

Adierazlea: Diruz lagundutako proiektuen kopurua: 4

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura

Organoa: Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia / Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritza

Helburu duen sektorea: Sektore pribatua eta hirugarren sektore soziala.

PLANA / ESTRATEGIA 2021-2024 jarduera plana**HELBURU ESTRATEGIKOA 2030 Agendaren lehentasunen euskal programa**

EKINTZA ILDOA: IV. lehentasuna: Trakzio-konpromisoak eta proiektu enblematikoak.

Jarduera: Proiektu pilotu errepikagarriak eta eskalagarriak egitea eta bultzatzea Gizarte Berrikuntzaren eta 2030 Agendaren arloan.

Adierazlea: Diruz lagundutako proiektu kopurua: 4



ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO KOMISIONATUA

1.- ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO KOMISIONATUARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK

Zeharkako ekimen traktoreak ZTBP Euskadi 2030 planaren berrikuntzetako bat dira. Haien helburu nagusia da RIS3 espezializazio adimenduneko arloetara zeharkako I+G+b proiektu traktoreak sustatzea, herri eremu estrategiko gutxi batzuetan: "Zahartze osasungarria"-n ; "Mugikortasun elektrikoa"-n eta "Ekonomia zirkularra" delakoan, hain zuzen. Ekimen horien garapena bultzatzeko, laguntza-programa berri bat behar da, ikerketako eta garapeneko zeharkako lankidetzako proiektu traktoreak identifikatzea erraztuko duena. Aplikatu beharreko europar araudia Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamendua izango litzateke. Erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

1.1.- EUSKADI 2030 ZTBP-KO ZEHARKAKO LANKIDETZA-PROIEKTU TRAKTOREETARAKO LAGUNTZA-PROGRAMA

AURREKONTUA: 23 01 5414 14 452 19/3401

4. kapitulua; **2023:** 600.000 €. **2024:** Konpromiso-kreditua: 600.000€ / FINANTZIAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Ardua: Zeharkako Lankidetzako Proiektu Traktoreak diseinatzen laguntzak arautzen dituen 118/2022 dekretua, Euskadi 2030 ZTBP-ren zeharkako ekimen traktoreen esparruan jasotako eremuetan.

Helburua: Zahartze Osasungarriaren, Mugikortasun Elektrikoaren eta Ekonomia Zirkularraren esparruetan Ikerketa eta Garapeneko Zeharkako Proiektu Traktore Kolaboratiboak diseinatzen laguntzea, aurkeztutako hainbat proiektu integratzearen ondorio direnak eta Zeharkako Ekimen Traktore bakoitzerako ezarritako erronkei eta helburuei erantzuna eman diezaieketenak, Euskadi 2030 ZTBPrean esparruan.

Jarduera: 2023tik 2024ra bitartean laguntza-programaren 2 deialdi egitea.

Adierazlea: Zahartze osasuntsuaren, mugikortasun elektrikoaren eta ekonomia zirkularraren 3 eremuetan zeharkako 9 lankidetzako proiektu traktoreen diseinua babestea gehienez.

Prozedura: Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak, norgehiagoka bidez itzuli behar ez direnak.

Organoa: Lehendakartzaren idazkari nagusia (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatuaren kudeaketa teknikoa)

Helburu duen sektorea: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratutako eragile zientifiko-teknologikoak, klusterrak dinamizatzen dituzten elkarteak, enpresak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

PLANA / ESTRATEGIA: EUSKADI 2030 ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANA

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKADI 2030 ZTBPrean oinarritzko ildo estrategikoak hedatzea

EKINTZA ILDOA: EUSKADI 2030 ZTBPrean oinarritzko ildo estrategikoak hedatzea

Jarduera: ZTBP 2030 hedatzeko funtsezko jarduerak, ekimenak eta proiektuak garatzea

Adierazlea: Lehendakartzako Berrikuntza Funtzak babestutako zeharkako ekimen estrategikoak (9)



GAZTERIA ZUZENDARITZA

1.- GAZTERIA ZUZENDARITZARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK.

1.1.-EAEKO TOKI-ERAKUNDEAK GAZTEEN EMANTZIPAZIO-DIAGNOSTIKOAK ETA PLANAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

AURREKONTUA: 23 01 3222 32 421 21/1071

4. kapitulua; **2023**: 300.000 €; / FINANTZIAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena, honako jarduera hauek sustatzeko: diagnostiko-azterketak egitea, gazte-emantzipazioko planak eta gazte-planak egitea, plan horien jarraipena edo ebaluazioa egitea, eta toki-mailako beste ekimen batzuk egitea edo horiek sistematizatu eta ebaluatzea, baldin eta horien helburua gazteen emantzipazio-prozesuan laguntzea bada (egiteko zain).

Helburua: Zeharkako gazte-politika eta gazteen emantzipazioa sustatzea.

Jarduera: Gazteen emantzipazioa bultzatzea toki eremuan.

Adierazleak: Toki erakundeentzako diru-laguntzak, gazteen emantzipazio planak eta ekimenak garatzeko: 20

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura

Organoa: Gazteria Zuzendaritza

Helburu duen sektorea: Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeak, nortasun juridikoa dutenak, eta mankomunitateak edo udalaz gaindiko erakundeak, nortasun juridikoa dutenak.

1.2.- GAZTE-TALDEEN ARTEKO MUGIKORTASUN ETA ELKARTRUKERAKO JARDUERAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

AURREKONTUA: 23 01 3222 32 452 19/0728

4. kapitulua; **2023**: 145.000 €; / FINANTZIAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Dekretua, gazte-taldeen arteko mugikortasun eta elkartrukerako jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena (egiteko zain).

Helburua: Gaztetasuna sustatzea berariazko programen eta zerbitzuen bitartez.

Jarduera: Gazteen mugikortasuna sustatzea.

Adierazleak: Gazteen mugikortasunaren inguruko proiektuentzako diru-laguntzak: 15.

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura.

Organoa: Gazteria Zuzendaritza

Helburu duen sektorea: EAEko pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, irabazi-asmorik gabeak.

1.3.- GARAPEN LANKIDETZARAKO ENTITATEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMARAKO PROIEKTUAK AURKEZTEKO

AURREKONTUA: 23 01 3222 32 452 19/0690

4. kapitulua; **2023**: 80.000 €; / FINANTZIAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: Dekretua, gazte-taldeen arteko mugikortasun eta elkartrukerako jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena (egiteko zain).

Helburua: Gaztetasuna sustatzea berariazko programen eta zerbitzuen bitartez.

Jarduera: Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa antolatzea.

Adierazlea: Gobernu kanpoko erakundeak: 40.

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura.



Organoa: Gazteria Zuzendaritza

Helburu duen sektorea: Euskal Autonomia Erkidegoko garapenerako lankidetzako erakundeak.

1.4.- GAZTERIA ARLOAN EGITARAU ETA JARDUERAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

AURREKONTUA: 23 01 3222 32 452 23/0547

4. kapitulua; **2023:** 800.000 €; / FINANTZIAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

- 400.000 €, 2023ko ordainketa-kreditu gisa.

- 400.000 €, 2024ko konpromiso-kreditu gisa.

Araua: Dekretua, gazteria arloan egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena (egiteko zain).

Helburua: Gazteen partaidetza sustatzea.

Jarduera: Gazteen elkartegintza sustatzea eta elkarten funtzionamendurako eta jardueretarako laguntzak ematea, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eremuan.

Adierazleak: Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak, gazteria alorrean programak eta jarduerak garatzeko: 55.

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura.

Organoa: Gazteria Zuzendaritza

Helburu duen sektorea: EAEko pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, irabazi-asmorik gabeak.